



Eneko Maioz Orexako alkatea, Ibai Iriarte Tolosako alkatea eta Bakartxo Mendez Legorretako alkatea izan ziren agerraldian. I. URKIZU

Tolosaldeko osasun mahaia osatzeko prest agertu da Osasun Saila

Asteazkenean Jon Darpon sailburuarekin egindako bileratik «gustura» atera ziren eskualdeko alkateak

Itzea Urkizu Tolosa

Tolosaldeko alkateak, Andoaingo eta Legorretako alkateekin batera, Tolosaldeko osasun zerbitzuaren inguruan hitz egitera joan ziren, pasa den asteazkenean, Jon Darpon osasun sailburua eta bere lantaldearengana. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila prest agertu da, eskualdeko osasun zerbitzuaren jarraipen mahaia osatzeko.

Eskualdeko alkateek hiru eskaera nagusi egin dizkiete sailburuari eta taldeko kideei. Batetik,

2011. urtean Osasun Sailak eskualdeko Asuncion ospitale pribatuarekin sinaturiko akordioaren balorazioa eskatu diete. Era berean, Tolosaldeko biztanleek jasotzen duten osasun arretaz hitz egiteko, mahai bat sortu nahi dute alkateek, jarraipena egiteko eta gauzak hobetzeko. Azkenik, 2011ko azaroan sinaturiko akordioaren aurreko egoerara itzuli nahi dute.

Bileran izandako alkateek «gustura» azaldu dute euren burua; hala nabarmendu dute, Ibai Iriarte Tolosako alkateak, Eneko Maioz Orexako alkateak eta Bakartxo Mendez Legorretako alkateak, egindako agerraldian: «Bileran bide positibo eta eraikitzailetik joan zen», azaldu du Ibai Iriarte Tolosako alkateak.

Izan, ere, Jon Darpon osasun sailburua eta bere lantaldea prest

agertu dira eskualdeko osasun zerbitzuaren jarraipena egingo duen mahaia osatzeko. Asuncion ospitale pribatuarekin sinaturiko hitzarmenaren balorazioari dagokionez, berriz, jada eginda da goela jakinarazi diete Osasun Saileko kideek alkateei; osatuko duten mahaia erabiliko dute horretaz hitz egiteko.

Dena den, Jon Darponek argi azaldu du egindako bileran, legealdi honetan ez dutela osasun azpiegitura berririk eraikiko, ez eta ospitalerik publiko egingo ere. Horrela, «lanean jarraitu behar da, eta pausoz pauso joan», Ibai Iriartek nabarmendu duenez: «Oinak lurrean ditugu, eta bada-kigu ez dela erraza izango ospitale publiko bat lortzearena. Lehenik eta behin, 2011ko azaroan hitzarmen hura sinatu aurreko egoerara itzultzea lortu nahi dugu. Horren ondoren etorriko dira beste helburuak».

Tolosaldeko alkateek ez dute, ordaindik, Jon Darponekin eta

↓ Egindako eskaerak

1 Balorazioa. 2011n sinatutako akordioaren balorazioa.

2 Osasun mahaia. Tolosaldeko osasun zerbitzuaren jarraipena egiteko.

3 Aurreko egoera. 2011ko hitzarmenaren aurreko egoerara itzultzea.

bere lantaldearekin egin beharreko hurrengo bileraren eguna zehaztu. Agerraldian, ordea, uda aurretik bilduko direla azpimarratu dute Tolosa, Orexa eta Legorretako alkateak: «Aurreko Osasun Saileko kideek baino borondatea handiagoa erakutsi dute, eta bilera egiteko prest azaldu dira, beraz, uda aurretik biltzea eskatuko diegu. Gure helburuak lortzeko, berriz, ez dakigu zenbat denbora beharko dugun, epeez ez dugu hitz egin, baina esan bezala, borondatea erakutsi digute elkarlanean aritzeko».

Zerbitzu eta kudeaketa publikoa
2011. urteko azaroan, hitzarmena sinatu zuten Tolosako Asuncion klinikak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak.

Ordura arte, Osakidetza eskaintzen zituen mediku espezialisten kontsultak Tolosako espezialitateen ambulatorioan jasotzen zituzten, bai Tolosaldeko eta

baita Legorreta eta Andoaingo herritarrek ere. Ospitale zerbitzuari dagokionez, berriz, erreferentziako bi ospitale zituzten, ordu arte, herritar hauek: Donostia ospitalea eta Asuncion klinika.

Gaur egun, akordioaren ondorioz, Tolosaldeko osasun zerbitzuaren erabiltzaileek, Asuncion klinikan jasotzen dituzte mediku espezialisten kontsultak, eta ospitale zerbitzurako ere, Asuncion klinikara jo behar dute, nahitaez.

Ibai Iriartek, beren helburua aurreko egoerara itzultzea dela nabarmendu du: «Especialitate guztiak Tolosako espezialitateen ambulatorioan egotea nahi dugu, eta Donostia Ospitalea, Asuncion klinikarekin batera, erreferentziako ospitale izatea. Hitz batean, osasun zerbitzu publikoa nahi dugu, kudeaketa publikoaz».

Onkologikoa eta Kutxabank
TOPA koordinakundea ia larunbatero irteten da kalera, esku orriak banatu eta beren aldarriak plazaratzera. Larunbat honetan, ordea, sinaduren mahaia ohi bezala Trianguloa plazan jarri beharreen, San Frantzisko pasealekuko Kutxabank sukurtsalaren aurrean jarriko dute.

2012ko azaroan, Onkologikoa Fundazioak Madrilgo enpresa pribatu batekin zenbait akordio sinatu zituen, aholkularitza eta estrategia arrazoiak medio. Era berean, honen bidez, onkologikoren kudeaketa ere kanpotik egitera pasa ziren.

Hau guztia salatuz, eta Kutxabankek auzi honetan «sakeoa» egin duela gaitzetsiz, 11:00etatik 12:00etara bitarte izango dira, bihar, San Frantzisko pasealekuan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ Iragarki laburrak

LANA

Etxeko lanak. Etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesatuek deitu: 943 69 6882 edo 606 52 19 92 telefono zenbakietara deituz.

Euskal Herriko Halterofilia Txapelketa jokatu da Olaederran

Maila nagusiko lehiak banaka, taldeka eta federazioka ariko dira pultsulariak, bihar, 15:30etik aurrera

A. Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Olaederra kiroldegian goi mailako halterofilia txapelketa jokatu da bihar, apirilak 6, 15:30etik aurrera. Euskal Herriko pultsulari onenak bertan elkartuko dira, Maila Nagusian, Euskal Herriko Halterofilia Txapelketa jokatzeko. Olaederrako pista nagusian, guztira 42 pultsulari ariko dira lehiak. Hauetatik 32 mutilak izango dira, eta 10 neskek.

Euskal Herriko txapelketaren barruan, banakako lehiak, taldekakoak eta federazioen artekoak ikusteko aukera egongo da. Etxe-ko taldeko pultsulariek ez dute hutsiki egingo, eta Danok Danena Halterofilia taldeko kideak lehiak ibiliko dira larunbatean. Hain zuzen ere, Danok Danenatik eskualdeko herritar guztiak gonbidatu dituzte halterofilia txapelketara. Kirol hau gertutik ezagutzeko aukera paregabea izango da larunbatean Amasa-Villabonako Olaederran.

→ Laburrak

KZguneako lehen tutoritza hitzordua gaur izango da

ADUNA ▶ Apirilean bi tutoritza hitzordu izango dira Adunako KZgunean: hilaren 5ean, gaur, eta hilaren 19an. Tutorea 09:00etatik 13:00etara egongo da KZgunean, gerturatzen diren guztiak laguntzeko prest. Informazio gehiagorako, tutor.andoain@kzgunea.net-era idatzi behar da.

Festa batzordearen batzarra, astelehenean

IRURA ▶ Kirol Astea, Maiatza Kulturala eta beste hainbat gai aztertuko dituzte Irurako festa batzordean, apirilaren 8an, astelehenean. Batzarra udal-etxe-ko bilkura aretoan izango da 19:00etatik aurrera. Udaletik herritar guztiak gonbidatu dituzte festa batzordearen bilkurara.

Festak antolatze-ko batzarra hilaren 9an

ANOETA ▶ Herriko festak antolatzen hasi dira Anoetan, eta herritarren parte hartzearekin antolatzen jarraitu nahi dute-nez, apirilaren 9an, asteartean, batzar irekia egingo dute udal-etxean, 19:00etan. Bertara, herri-ko talde eta herritar oro gonbidatu dituzte, parte hartzea azpimarratuz, «festak denon gustukoak izan daitezen».



Jesus Mari Penilla eta Antton Karrera Tolosako Foro Errepublikanoko kideak, atzo, prentsaurrekoan. A. IMAZ

Tolosan II. Errepublikaren 82. urteurrena ospatuko dute, aste osoan zehar

Apirilaren 8tik 14ra bitarte egitarau oparoa osatu dute; urteurrenaren egunean bazkaria egingo dute

Asier Imaz Tolosa

Tolosako Foro Errepublikanoak apirilaren 14a behar den bezala oroitu nahi du, eta II. Errepublikaren 82. urteurrena ospatzeko, aste guztiko egitaraua antolatu du. Ekimen horretan, Tolosako Udalaren erabateko laguntza izan dutela azaldu dute Jesus Mari Penillak eta Antton Karre-
rak. Inplikazio horren adibide

gisa, udalak iragan urteko maia-tzean onartutako mozioa ekarri dute gogora, non Errepublikaren oroitza berreskuratzeko eta 1936ko estatu golpearen eta diktaduraren biktimei ohorea emateko konpromisoa agertzen zen.

Foroko kideek Aste Kultural Errepublikanoaren aurkezpen ekitaldian, ospakizunak aurkezteaz gain, egungo egoeraren irakurketa egin dute eta monarkia-
ren amaiera eskatu dute. Amaiera hori inoiz baino beharrezkoagoa dela azaldu dute, eta inoiz baino gertuago dagoela ere esan dute. Horren aurrean, ezkerreko errepublika aldarrikatu dute, non autodeterminazio esku-
bideak bere lekua izango duen,

herrialdeen independentzia nahia bermatzeko, herritarrek horrela erabakiz gero.

Manifestazioa eta bazkaria

Errepublikaren urteurrenaren bezperan, apirilaren 13an, Donostian manifestazioa egingo da, eta hiriburuan errepublikaren alde egiten den lehena izango dela gogora ekarri du Penillak. Herritar guztiak bertara joateko dei egin diete. Apirilaren 14an, azkenik, bazkari batekin emango diote kultur asteari amaiera. Bertara joan nahi dutenek, Kutxabank-en 22 euro sartu beharko dituzte, izen abizenak aipatuz. Kontuaren zenbakia ondorengoa da: 2095 5081 93 1074768150.

Gutuna

Zorionak, EAJ

Zorionak diot azkenik mobilizazioen hasi zaretelako. Kalean pankarta hartu eta protesta egiten ikusi dut EAJ-ko jendea. Baita sinadurak biltzen ere! Atez atekoa ez duzue gustuko. Oso sistema garesti eta zikina omen da. Zuek, errauste planta nahiago duzue. Orain, zabor poltsak balkoietan zintzilikatze-ko delaldia egiten duzue, Bilduren «inposizioa» salatze-ko asmoz edo. Niri pertsonalki, ez dit molestatzen. Hori bai, penagarria iruditzen zait, bere burua abertzaletzat duen alderdi batek, Espainiako bandera ezartzeko inposizioaren aurrean (hau bai inposizioa, maiusku-laz), beste alde batera begiratu eta mutu gelditzea. Ez dut ikurrinarik ikusi Chelo Romeoren (aurreko alkatea, EAJ) balkoian, adibidez. Zabor poltsak ordea, bai. Penagarria!

Atez atekoa «inposizioa» dela diozue haserre. Baina... egun daukagun sistema, hau

da, edukiontziena, nola jarri zen? Herriari galdeketa eginez? Eta zer diozue AHTari buruz? Hori bai inposizioa. Eta gainera, ez dagoen dirutik, zuek 500 milioi euro aurreratzeko prest zaudete! Zergatik ez herri galdeketa horren inguruan? Lotsa gutxi behar da orain zuek herriari galdetu behar zaiola esateko. Milaka lagun atera izan gara kalera, AHTaren inguruan herriak erabaki dezala eskatzen. Baina argi hitz eginda, zipaioen jipoiak besterik ez ditugu jaso. Jipoiak, isunak eta zenbait kasuetan, kartzela.

Dena den, eta hasieran esaten nuen bezala, zorionak eta ongi etorriak kale «mobilizazio-aren mundura». Zaborrengatik bada ere!

Zuek segi zabor poltsak zintzilikatzen. Guk, geureari. Errauste planta? Ez, eskerrik asko! Atez atekoa, auzo konpostoa aurrera!

■ **Josu Balza.** Ibarra.

↓ Egitaraua

APIRILAK 8, ASTELEHENA

■ **19:30.** Aranburu Jauregiko erakusketa aretoan, Ibai Iriarte Tolosako alkateak Errepublikako objektu eta argazkien I. erakusketa inauguratuko du. Aste osoan egongo da zabalik.

APIRILAK 9, ASTEARTEA

■ **19:30.** Aranburu Jauregian, *Gerra eta errepresioa Tolosan* izeneko hitzaldia, Iñaki Egaña eta Carlos Almorza historialari-
en eskutik. Azken honek, Tolosaldean fusilatutako inguru-
an ere hitz egingo du.

APIRILAK 10, ASTEAZKENA

■ **19:30.** Garbiñe Biurrun epaile-
aren eta EHUko irakasle lagun-
tzailearen hitzaldia. II. Errepubli-

ka: *Lan harremanen eredu demokratiko bat* izango da gaia.

APIRILAK 11, OSTEGUNA

■ **19:15ean eta 21:45ean.** Leidor aretoan, Trisha Ziff-en *La maledita mexicana* filma. Lehen emanaldian, aurkezpena eta solasaldia egongo dira.

APIRILAK 13, LARUNBATA

■ **12:00.** Udal-etxe-ko bilkura aretoan, *Memoriaren izenak* liburuaren gaztelarazko bertsioaren aurkezpena egingo du egileak, Mikel Errazkin anoetarrak.
■ **Ondoren.** Estalkia kenduko zaio udal-etxe-ko toki nabarmen batean jarritako plaka bati. Oroigarrian, diktadurak kargu-
gabetutako udal korporazioari omenaldia egiten zaio. Modu

honetan, errepublikarren lege-
kotasuna aldarrikatu nahi da.

■ **18:00.** Donostian, Boulevardetik abiatuta manifestazioa, *Monarkia, injustizia eta ustelkeriaren kontra. Errepublika eta herrien, hiritarren eta langileen eskubideen alde* lelopean.

APIRILAK 14, IGANDEA

■ **12:00.** Hilerrian jarritako dagoen monumentuaren aurrean lore eskaintza. Frankismoak erail, kartzelaratu, torturatu, erbeste-
ratu eta errepresaliatu guzti-
en oromenegiz.

■ **13:00.** Udal-etxean, bandera errepublikarra jasoko da, ikurrinarekin batera. Musika bandak kontzertua eskainiko du gai-
erkin lotura duten piezak joaz.

■ **14:15.** Herri bazkaria Zerkau-
sian.

Inoiz baino bisitari gehiago izan dira Aste Santuan

Gipuzkoako eta eskualdeko turistek gora egin dute nabarmen aurtengo oporraldian; Espainiatik etorritakoak, %6 jaitsi dira

Bisitari gehienak egun pasa etorri dira, eta beraz, okupazio tasan beherakada izan da

Mikel Iraola

Inoiz baino turista kopuru handiagoa izan da Tolosaldean Aste Santuko bost opor egunetan. 1.732 bisitari jaso dituzte guztira Tolosa eta Larraitzeko bi informazio bulegoetan, iazko hirukoitzan.

Duela hiru urte ireki zen Larraitzeko Txindokiko Itzala bulegoan izan da bisitari kopuru gehien. 1.228, hain zuzen. Horietako 918, igandeko eguraldi onak eraman zituen bertara, gehienak familia giroan.

Jatorriari dagokionez, euskaldunen presentzia nabarmen igo da, batez ere, gipuzkoar eta eskualdekoena. Atzerritik etorritakoen kopuruak ere gora egin du, %3, hain zuzen ere.

Gipuzkoarren gorakada

Bertako bisitarien igoera izan da Tolosaldea Garatzenek gehien nabarmendu duena. Joan den urtean, 140 gipuzkoar jaso baziren, aurtun 1.048ra igo da kopurua. Horietako 91, gainera, eskualdekoak izan dira. Arabar, bizkaitar eta na-



Tolosaldea Garatzeneko Jose Luis Urdangarin eta Olatz Ilarregi, webgune berriaren aurkezpenan. M. IRAOLA

farrak kontutan hartuta, 1.433 bisitari euskaldun izan dira.

Espainiatik etorritakoen kopuruak behera egin du, %6ko jeitsierarekin. Kataluniarrak, berriz, fi-

↓ Zenbakia

1.732

■ **Bisitari.** la 2.000 pertsona pasa dira bost opor egunetan Tolosa eta Larraitzeko informazio puntuetatik. Zehazki, 504 Tolosan izan dira, eta 1.228 Abaltzisketan. Horietako 918, gainera, igandean izan ziren.

del jarraitzen dute, joan den urteko 64tik, aurtengo 93ra pasaz. Espainiaz kanpotik, guztira, 34 turista iritsi dira, iaz baino 10 gehiago. Mexiko, Holanda, Peru eta Frantziatik etorri dira gehienak.

Okupazio tasak behera

Bisitariaren izaera, ordea, egun pasa datorrenarena izan da. Ondorioz, eskualdeko okupazio tasak behera egin du. Nekazal-turismo edo landetxeetan, %61eko okupazioa izan dute, eta hotel eta pentsoetan, berriz, %74koa.

Olatz Ilarregi Tolosaldea Garatzeneko turismo arduradunaren esanetan, datuak «iazkoak baino okerragoak» izan arren, «gusturaz» daude: «Leku askotan pazko

astelehena jai eguna ez dela kontutan hartuta, ontzat ematen ditugu. Gipuzkoako batez besteko datuen oso antzekoak dira».

Bisitari kopuruak, ordea, ostalaritzan eta museoetan modu positiboan eragin du. Gastronomian aldetik, Pintxo Pass ekimenak harrerera «ona» izan du, eta guztira 134 pase saldu dira. *Karakol saltsa* menua eskaini duten jatetxe asko ere «oso ondo» aritu dira lanean. Museoen kasuan, berriz, 169 bisitari hartu ditu Gorrotxategi museoak, eta 397 Topic zentroak.

Datuekin, beraz, pozik daude Tolosaldea Garatzenen: «Balorazio positiboa egiten dugu. Datu oso onak dira, eta lanean jarraitzeko motibatzen gaitu».

Informazio osatuagoa duen webgunea estreinatu dute

Turistari bidaiaren une guztietan laguntzeko eduki berriak izateaz gain, irisgarritasuna hobetu du orrialdeak

M. Iraola

www.tolosaldea.net. Horixe izango da eskualdeko bisitariarentzat informazioa bilduko duen webgune eraberritua. Urtarrilean bistaratu bazuten ere, azken ukituak ematen ibili dira orain arte, eta atzo aurkeztu zuten Tolosaldea

Garatzeneko Jose Luis Urdangarin eta Olatz Ilarregik. 2005ean, garaiko beharrei erantzuten zien lehen orrialdea egin zenetik asko aldatu dira Internet eta kontsumitzeko ohiturak. Hori dela eta, web 2.0 teknologia aplikatu, eta «irisgarritasun hobea eta informazio aldetik osatuagoa» den webgunea sortu dute.

Plataforma integrala

Turistari bidaiaren etapa ezberdinetan lagunduko dion plataforma integral izatea bilatzen du webguneak. Honela, bidaiaren aurretiko, bidaiaren egiten ari deneko, eta

ondorengo faseak bereizi dituzte edukiak antolatzerako orduan. Lehen fasean, bidaiaren antolaketan zentratu dira, eta ostatuak bilatu, ibilbideak planifikatu, irudiak ikusi, eta bisiten inguruko dokumentazioa jasotzeko aukera dago. Egonaldian zehar, kokatu eta bertako produktuak non kontsumitzeko informazioa izango dute. Bidaiaren ondoren, beren esperientziak partekatzeko aukera izango dute. Horretarako, gizaritate sareak aplikatu dituzte.

Eduki berria ere izango du. Herri bakoitzak bere informazio fitxa izango du, bereziki leku horie-

tara gerturatu nahi dutenei begira. Non erosi eta non jan atalak eguneratu dituzte, eta Tolosa Gourmet taldeko bazkideei tratua berezia eman zaie, hauen inguruko informazio gehiago ipiniz.

Turismo profesionalari begira, bilerak, mintegi eta barnetegiak egiteko egokituta dauden lekuak ere bildu dituzte. Gainera, informazio hori, lau hizkuntzatan izango da, euskaraz, gaztelaraz, frantsesez eta ingelesez.

Webgune irisgarria

Ahalik eta erabiltzaile gehienei helarazteko helburuarekin, WAI

protokoloa betetzen duen webgune egin dute. Horrela, hitz klabeen erabilpena handitu, webgunearen mapa jarri eta HTML5 programazioa erabili dituzte, bitartekariak errazago aurkitzeko. Gainera, eguneraketa bitartekariak gabe egiteko aukera izango dute, eta eurek egingo dituzte eguneroko aldaketak.

Ondoren, Google Analytics-en bitartez jarraipena egin, eta datuen arabera, mugikorren bertsioa egitearen ideia aztertuko dute. Aplikazioa egitearen ideia, berriz, guztiz baztertu dute oraingoz behintzat.

Saldías Miguel

ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
www.saldias-miguel.com

% 60 arteko aurrezkiak

- Autoak
- Motoak
- Furgonetak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Komertzioak
- Komunitateak
- Istripuak
- E.P.S.V
- Osasuna
- Inbertsioak
- etb.

Zazpiburrieta, 14 • 20200 **Beasain** • Tel.: 943 085 600
San Juan kalea, 6 • 20270 **ANOETA** • Tel.: 943 698 004
Nafarroa Etorbidea, 12 behe • 20400 **Tolosa**
Tel. 943 651 189



Bertako produktuak erosi, prestatu eta jateko aukera, Sukaltalka tailerlean

Bihar 11:00etan emango diote hasiera 'Zu zeu chef onena' tailerrari; izena emateko aukera zabalik dago

Enertiz Maiz Tolosa

Bihar, *Zu zeu chef onena* sukaltalka tailerra izango da, eskualdeko sukaldari baten eskutik. Tolosako eta Euskal Herriko errezetarik ezagunenak egitea proposatzen dute, Zerkausiko azokan bertako produktuak erosi eta gero.

11:00etatik 15:00etara izango da Sukaltalka tailerra. Sukaldariak osagai egokienak nola aukeratu behar diren erakutsiko die, hau da, prestatu beharko dituzten errezetetan zapore eta testura onenak lortzeko. Halaber, lore eta landare azoka bisitatuko dute Berdura plazan. Ondoren, Euskal Herria plazara joango dira, eta



Bertako produktuak erosi dituzte Zerkausian azokan. HITZA

bertan atzerriko produktuen eta oihalgintzakoen azoka izango dute ikusgai.

Erosketak egin ostean, Sukaltalka tailerrera joango dira, eta sukaldariaren begiradapean garraiko barazkiekin osatutako menua prestatuko dute. Norberak prestatutakoa jan eta gero buka-

tutzat emango dute bisita. Helduak 38 euro ordaindu beharko dute, 4 eta 13 urte arteko haurrek, 19 euro.

Izena emateko tour@tolosaldea.net helbidera idatziz edo Tolosaldeko Turismo Bulegoko 943 697 413 telefono zenbakira deituz egin daiteke.

Juantxo Skalari & La Rude Band izango da Bonbereneako oholtzan

Bonbereneak apirileko kontzertuen eskaintza prestatu du; bihar 22:30ean hasiko da musika emanaldia

↓ Kontzertuak

APIRILA

- **Bihar, hilak 6.** Juantxo Skalari & La Rude Band izango da, 22:30ean. Sarrera, 8 euro.
- **Apirilak 12.** Desastrozombies eta Samesugas taldeen kontzertua, 22:30ean. Sarrera 8 euro izango da.
- **Apirilak 13.** Siroka eta Norte Apache taldeek joko dute, 22:30ean. Sarrera, 5 euro.
- **Apirilak 19.** Dinero eta Muy Fellini taldeak izango dira, 22:30ean. Sarrera, 8 euro.
- **Apirilak 26.** Tooth eta Meido taldeak igoko dira taula gainera, 22:30ean. Sarrera, 8 euro.
- **Apirilak 30.** Talco italiar taldearen kontzertua izango da, 21:00etan. Sarrera, 8 euro.

E. Maiz Tolosa

Tolosako Bonbereneak prestatu du apirilean eskainiko duen musika eskaintza. Astebururo izango da kontzertuek gozatzeko aukera, eta lehen emanaldia bihar bertan izango da.

Juantxo Skalari & La Rude Band izango da taula gainera igoko den lehena. Atzetik, hilaren 12an, Desastrozombies donostiarrak eta Samesugas galiziarren txanda izango da, eta hilaren 13an Siroka eta Apache taldeek disko berriak aurkeztuko dituzte. Hilaren 19an, pop-rock gaua izango da Muy Fellini eta Dinero madrildarrek. Astebete berandua go Tooth eta Meido taldeen musika gozatzeko aukera izango da.

Eta hilabetea bukatzeko, hilaren 30ean, asteartean, Talco italiar taldearen kontzertua izango da Bonbereneako taula gainean.

Irudia Tolosa



ELKARTASUN AZOKARA JOATEKO DEIA

Maiatzak 20 elkarteak asteazkenetik martxan du Elkartasun Azoka, Tolosako kultur etxean. Lehen egunean jende asko ibili zen joan-etorrian, eta antolatzaileek bertatik pasa eta elkartasuna adiera-

ziz bertan erosteko deia egina dute. Ateratzen duten dirua *Oporrak bakean* proiektuaren barruan familiarik gabe geratzen diren saharar haurrak aterpetxean hartu ahal izateko baliatuko dute. **IT.**

Doako pilates saioa egiteko aukera, bihar

Ariketa Fisikoaren Nazioarteko eguna dela eta, Belate medikuntza zentroko gimnasioan izango da saioa

E. Maiz Tolosa

Bihar, hilak 6, Ariketa Fisikoaren Nazioarteko Eguna izaki, Tolosako Belate medikuntza zentroaren gimnasioan doako pilates saioa egingo da. 11:00etan emango zaio hasiera ordubeteko iraupena izango duen saioari. Bizitza sedentarioari aurre egin eta osasuntsu mantentzen ikasteko

izango da. Pilates saioa tolosar guztiei zuzendua da, eta izena www.clinicadelaasuncion.com webgunean dagoen fitxa beteaz eman daiteke.

Ekimena Mikel Otxoa pilates irakasle eta fisioterapeutak zuzenduko du. Partaideen egoera fisikoa eta maila dena delakoa izan da ere, irakasleak pilates diziplinaren oinarriak azalduko dituzte errazean. Pilates errehabilitazio prozesuan egon edota lesioaren bat jasan duten pertsonentzat gomendagarria da, baita ariketa fisiko prebentiboa egin nahi dutentzat ere. Egunerokotasunean ariketa fisikoak duen garrantziaz kontzientziatu nahi dute.

Maria del Mar del Castillo › Alergologoa

Biztanleriaren laurdenak inguru alergia motaren bat du egun, eta hamar urtetan kopuru hori bikoiztu daiteke. Neurriak hartzeko gomendatzen du Maria del Mar del Castillo alergologoak.

«Lorautsarekikoak baino arazo gehiago sortzen du hemen akainekiko alergiak»

Imanol Garcia Landa

Hogeita bost urte baino gehiago daramatza Maria del Mar del Castillo (Donostia, 1956) alergia dutenak artatzen Asuncion klinikari. Alergiari buruzko albisteak udaberriarekin batera zabaldu ohi direla dio, baina urte guztian zehar eragiten duten alergiak ere badaudela nabarmendu nahi izan du.

Alergikoentzat sasoi txarra datorrela zabaldu da. Hainbesteko izango da?

Alergiari buruz ari garenean, beti udaberriari buruz hitz egiten da. Baina hemen arazo gehiago ematen du akainek sortzen duten alergia iraunkorrek, urte guztian dagoelako. Udaberriari izaten den gramineoen lorautsarekiko alergia ikusgarriagoa da, baina hemen patologia gehien ematen duena akainena da. Lorautsari buruz baino askoz gutxiago hitz egiten da akainei buruz.

Eta horizergatik gertatzen da?

Ez dakit, hemen akainek arazo gehiago sortzen dute. Udaberriarena ikusgarriagoa da, eta komunikabideetan horri buruz hitz egiten da gehiago. Hemen hezetasuna dugu, tenperatura epela, eta etxeetan akainak hazten dira.

Lorautsei buruz ari garenean, denak berdina dira?

Hor ere beharrezkoak dira zehaztasunak. Zuhaitz, lore eta belar bakoitzak bere polinizazio garaia du. Lorautsari buruz orokortasunean hitz egiten da, eta ez da horrela izan behar, lorauts bakoitzak bere garaia duelako. Gramineoen lorautsari buruz hitz egiten da komunikabideetan, banaketa oso unibertsala delako, eta maiatza eta ekainean ematen ditu arazoak. Baina otsaila, martxo eta apirila zuhaitzen polini-



I.G.L.

zazio garaia da. Ikusi ohi den hauts horia pinuarena da; pinuaren lorautsak alergia eragiten badizu, arazoak otsailan eta martxoan izango dituzu, baina ziurrenik maiatzean eta ekainean ez. Beraz, garrantzitsua da pertsona bakoitzak jakitea zeri dion alergia, horren arabera bere neurriak hartzeko. Askotan dena nahastu egiten da, lorauts guztiak berdina direla pentsatzen delako.

Beraz, nolako izango da iragarri den sasoi txar hori?

Maiatza eta ekainean izango dugun eguraldiaren arabera izango da hori. Ohikoena da gure udaberriak euritsuak izatea, eta euririk lorautsa garbitu egiten da.

Beraz, maiatzean eta ekainean euria egiten badu, garbitu egingo du. Beroa, haizea eta eguzkia egiten badu, lorautsa gehiago izango da. Leku lehorretara bazoaz, han udaberriaren ez dute euririk izaten normalean. Orain arte euri asko egin duenez, pentsatzen dute lorautza bizia izango dutela eta, beraz, polinizazioa ere bai. Baina hemen udaberriaren euria egiten duen eragina leunagoa da.

Zer neurri hartu behar dira?

Batetik, alergia sortzen dizun horren aurrean prebentzio neurriak hartzea. Adibidez, alergia diozun lorautsaren garaia bada, leku itxietan bazaude askoz hobe, hori

bai, leihoak itxita badituzu. Bestetik, tratamendua alergiak eragiten dizun arazoaren arabera izango da. Ez da berdina konjuntibitisa izatea, errinitisa, asma edo azalean arazoak izatea. Beraz, bakoitzak beharrezko medikamentuak hartu beharko ditu, sendagileak egoera bakoitzerako ematen duena. Bestalde, txertoa da epe luzera alergiaren bilakaera aldatu dezakeen tratamendua; hau da, alergia diozun hori sartzea, bere eragina blokeatuko duen mekanismoak sortzeko.

Zenbat dira alergiaren bat dutenak? Euskadin, Europan bezala, gutxi gorabehera biztanleriaren %20a eta %25a artean da alergikoa. Ko-

↓ Zenbait aholku

AKAINEI ALERGIA DIOTENENTZAT

- Hautsa metatu dezakeena ekidin: moketak, alfonbrak, tapizak, errezel lodiak...
- Xurgagailu indartsu bat pasatu, HEPA filtroa duena, altzari eta koltxoietatik.
- Hautsa trapu heze batekin kendu.
- Mairidireak astero garbitu 60 gradutara.
- Hezetasuna ekidin etxe barruan.
- Etxea haizeberritu egunero.
- Iledun edo lumadun animaliak ekidin etxe barruan.
- Hobe da koltxoak goma-aparrezkoak edo material akrilikozkoak izatea, eta artilea eta lumak ekiditea.
- Komenigarria da koltxoi-azal eta bururdi-azal bereziak jaretzea.

LORAUTSARI ALERGIA DIOTENENTZAT

- Polinizazio garaian, ahal dela lorautsarekin kontakturik ez izan: mendira ez atera, belarra ez moztu, lorategiak edo espaloiak ez garbitu. Egin behar izanez gero, maskara erabili.
- Autoz bidaiatu behar baduzu, leihoak itxita eraman.
- Egun haizetsuetan, lorauts gehiago izaten da atmosferan; beraz, ahal dela aire librea ez ibili.
- Eguzkitako betaurrekoak erabili.
- Etxeko leihoak ahalik eta denbora gehien itxita eduki, lorautsa etxe barrura sar ez dadin.

purua igotzen joan da eta joera gorakoa da. Hurrengo hamar urtetan kopurua bikoiztu egingo dela esaten da. Horrek ez du esan nahi pertsona guzti horiek gaixotasun alergiko larriak izango dituztenik. Alergiek hainbat modutara eragiten dute. Errinokonjuntibitisa ez da larria, baina gogaikarria da. Asma izanez gero, larritasa zertxobait igotzen da. Elikadura alergieie dagokionez, azalean gorritasun bat izatetik heriotza eragin dezakeen arazoetaraino izan daiteke.

Sartu gure webguneetan
tolosaldea.hitza.info

Jarraitu albisteak
Twitter bidez
@hitzatolosaldea

hitza info



Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza
orrialdeari eman "atsegin dut"



Nafarroako Gobernuaren egungo egoeraz hitzaldia izango da hilaren 11n

Zentsura mozioaz eta azken gertakariez hitz egingo du Bixente Goikoetxeak, Leitzako udaletxean

I. Terradillos Leitza

EH Bilduk Nafarroako Gobernuan aurkeztu duen zentsura mozioaz eta hauteskundearen eskariaz hitzaldia antolatu du Leitzako ezker abertzaleak. «Nafarroan agintean egon diren eliteak gure herrialdea galbidera eramaten ari dira», azaldu dute. Bada, azken gertakariez hitz egingo dute, datorren ostegunean, hilaren 11n, 19:30ean, Leitzako udaletxean. Bixente Goikoetxea izango da hizlaria. Bestalde, bihar Iruñean Yolanda Barcinaren dimisioa eskatzeko egingo den manifestaziora deitu dituzte herritarrek.

Udal tramiteak etxetik egiteko aukera dute berastegiaren aurrerantzean

I. Terradillos Leitza

Berastegiko Udalak webgunea berri du. www.berastegi.com da webgune berriaren helbidea, eta udaletik azaldu dutenez, «aurrerakoak baino aukera hobekak eskaintzen ditu eta dohainik da». Besteak beste, udal tramitazioak bertatik egiteko aukera ematen die herritarrei, udaletxera joan beharrik gabe. Bada, aukera hori herritarrei erakusteko helburuz, ikastaroak antolatuko dituzte KZ gunean.

Berastegiko Udalak zazpi etxebizitza egiteko proiektua onartu du

2014ko martxo aldera hasiko lirake obrak; sei berastegiaren egin dute oraingoz, etxebizitza eskaera

I. Terradillos Berastegi

Berastegiko Udalak Ategioko eremuaren plan berezia onartu berri du ohiko batzarrean. Plan horrek eraikinak eta errepideak non eta nola izan behar diren zehazten du. Bi edo hiru hilabeteko epean Gipuzkoako Foru Aldundiak planari onarpena ematea espero du udalak, eta ondoren hasiko lirake bertan etxebizitzak egin ahal izateko tramitazioekin.

Hirigintza jardueraren programa, kontzertazio ituna, urbanizazio proiektua eta birpartzelazioa

egin behar dira orain. Azken hau, birpartzelazioa 2014ko martxo aldera amaitzea aurrekusi du udalak, eta orduan, hasiko lirake etxeak eraikitzen eta urbanizazioa egiten. Obra horiek 24 hilabeteko iraupena izango lukete.

Birpartzelazioa egin bitartean proiektuak prestatuko ditu udalak, eta prestatzen joan ahala interesa duten herritarrei erakusteko asmoa du, «erosleek zerranda eta etxebizitzaren zozketa egiten joateko». Udalak azaldu duenez, etxebizitzari buruz egindako galdeketa, 6 lagunek egin zuten etxebizitza eskaera. Era berean, aurreikusitakoak baino tamaina handiagoko etxeak nahi dituztela herritarrek ere ikusi dute. Hori dela eta, aurreikusiak zituzten 8 etxebizitzaren tokian azalera handiagoko zazpi egitea erabaki du udalak.

VII. Poltsiko Antzerki Lehiaketan izena emateko azken egunak

Asvineneak antolatzen duen lehiaketa maiatzeko ostiraletan egingo dute; irabazleak 600 euro jasoko ditu

I. Terradillos Aduna

Adunako Asvinenea arte eszenikoaren laborategiak zazpigarren urtez Poltsiko Antzerki Lehiaketa antolatu du. Antzezlan motzeko antzerki lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek datorren astelehenera arte, hilaren 8ra arte izango dute izena emateko aukera.

Antzezlan bakoitzaren iraupe-

na 8 eta 15 minutu artekoa izango da, profesional zein amateur artistek parte hartu ahal dute, eta gaia zein teknika libreak izango dira.

Lehiaketa lau galetan garatuko dute, eta Adunako Zubitxiki industrialdean kokaturiko Asvineneako aretoan izango dira. Maiatzeko lau ostiraletan egingo dituzte, hau da, maiatzaren 3an, 10ean, 17an eta 24an. Lehenengo hirurak kanporaketak izango dira eta azkena finala. Finalean epaimahai profesional batek aukeratu du talde irabazlea, 600 euroko saria irabaziko duena, eta publikoaren botoarekin bigarren irabazlea aukeratu du, 300 euroko saria jasoko duena.



Etxebizitzetako sukaldeak hornitzea geratzen da. IT

Gazteentzako etxebizitzetan izen emateko aukera

Apirilaren 10etik maiatzaren 10era arteko epea dute interesa duten 18 eta 35 urte bitarteko ibartarrek

I. Terradillos Ibarra

Ita amaitzean dira gazteei zuzenduriko etxebizitzaren obrak, eta Ibarako Udalak datorren astean zabalduko du izena emateko epea. Hain zuzen ere, apirilaren 10etik maiatzaren 10era bitarte izango dute etxebizitza horietara bizi zera joan nahi dutenek izena emateko aukera.

Interesatuak dokumentazio guztia (inprimakiak, araudia...) udaletxeko harreraren nahiz gizarite zerbitzuetan, kultur etxean edota ibarrakoudala.net webgunean eskuratu ahal dute. Maiatzaren 10a baino lehen entregatu beharko dituzte inprimakiak udaletxean edota kultur etxean.

Bestalde, Ibarako Udalak herritarrei erakutsi nahi dizkie etxebizitzak, eta adierazi dutenez, lanak bukatzen dituztenean izango da horretarako aukera.

32 etxebizitza izango ditu erai-kin berriak. 28 etxebizitza 33

m2ko azaleradunak izango dira, eta logela, sukalde-egongela eta komuna izango dituzte. Bi etxebizitzak 46 m2ko azalera izango dute, eta bi logela, sukalde-egongela eta komuna dituzte. Gainerako biak mugikortasun urritasuna duten herritarrentzat zuzenduak izango dira. Sukaldea eta komuna hornituta izango dute, eta gainerako gelak hutsik egongo dira, hau da, altzaririk gabe. Etxebizitza guztiek dute trastelekua, sotoan, eta garajea, berriz, aukeran. Garajea ere nahi dutenek 60 euro ordaindu beharko dute hilean.

18 eta 35 urte bitarteko herritarrek dute etxebizitza hauetara bizi zera joateko aukera. Ibarren errolatuta egon behar dute, edota azken hamar urteetan errolatuta egondakoak izan behar dute, diru sarrerek 3.000 eurotik 39.000 euro bitartekoak izan behar dute, eta ez dute etxebizitzarik jabetzan eduki behar. Alokairuan esleituko dira, 5 urterako, eta epe hori gaindituta, etxebizitza utzi beharko da. Alokairuagatik diru sarreren arabera kanon bat ordainduko da, 150 eurotik hasita.

Eskualdean gisa honetako lehen ekimena da, eta Gipuzkoan Donostian baino ez da horrelakorik ezagutzen.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



10°
5°

GOIZA EURI
ARRATSALDEA EURI
BEROENA 11°
HOTZENA 6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leizalaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alizo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Alegia.** Indarrean dagoen espere politikaren ondorio latzak salatzeo Herriak manifestazioa deitu du larunbatean, Bilbon. Alegian autobusa antolatuta dute, izena ohiko lekuetan eman behar da. Autobusa 15:15ean aterako da.
■ **Ibarra.** Antzokiko istorioak ikuskizuna izango da, Jakin eta Jolasen eskutik, 17:00etan, Benito Izagirre kultur etxean.
■ **Tolosa.** Tolosako Udalak, sangoan iragarriko dituen kartela egiteko lehiaketa antolatu du. Maiatzaren 17a da lanak aurkezteko azken eguna. Kartelean, *Sanjoanak 2013 / Tolosa, ekainak 21-25* agertu beharko da. Lanak kultur etxean aurkeztu beharko dira.
■ **Tolosa.** Kilometroak 2013ko ikasle Batzordeak Ahora! bideo lehiaketa antolatu du. Gehienez bost minutuko edozein bideo egin daiteke Ahora! leloa gai gisa hartuta. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 10a da.
■ **Tolosa.** Festa tropikala izango da Gazte Topagunean.
■ **Tolosa.** 18:30ean, Topic zentroan Txotxongillo taldearen erakusketaren bisita gidatua

izango da euskaraz edo gaztelaniaz, Enkarni Genuaren eskutik.

IKASTAROA

■ **Tolosa.** Hastapeneko clown ikastaro trinkoa izango da hilaren 6 eta 7an, Amartz auzo elkartean. 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara izango da. 70 euro ordaindu beharko da, eta izena *intujai@intujai.net* helbide elektronikora idatziz edo 647 201 401 telefono zenbakira deituz eman daiteke.

KIROLAK

■ **Tolosa.** Bide bide Donostia eta Askartzaren arteko saskibaloia partida izango da, 19:30ean, Usabalen.

ZINEMA

■ **Tolosa.** *Los amantes pasajeros* filma ikusteko aukera izango da, gaur, 22:30ean, Leidor zinemaren.

BIHAR

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** *Zu zeu chef onena* Sukaltalka tailerra izango da 11:00etatik 15:00etara.
■ **Tolosa.** 18:30ean, Topic zentroan Txotxongillo taldearen

erakusketaren bisita gidatua izango da euskaraz edo gaztelaniaz, Enkarni Genuaren eskutik.

KIROLAK

■ **Tolosa.** 10:00etan, Tolosa eta Ostadarz taldeen arteko futbol partida izango da. 17:00etan, berriz, emakumeen euskal liga-ko futbol partida jokatu dute Tolosa C.F. eta Arratia taldeek.

ZINEMA

■ **Amasa-Villabona.** *Mama* filma ikusteko aukera izango da 22:00etan, Gurea zinemaren.
■ **Tolosa.** 19:30ean, *Blue Valentine* filma jatorrizko bertsoian

ikusteko aukera izango da, jatorrizko bertsoian. 22:30ean, *Blue Valentine* eskainiko dute.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Juantxo Skalari & La Rude Band taldearen kontzertua izango da, Bonberenean. 22:30ean hasiko da kontzertua, eta sarrera 8 euro ordaindu beharko da.

ETZI

KIROLA

■ **Tolosa.** 12:15ean, Tolosa C.F. eta Ordiziatz taldeen arteko futbol partida izango da, Usabalen.

ZINEMA

■ **Amasa-Villabona.** Gurea zinemaren, 17:00etan haurrentzako *Blackie et Kanuto* izango da. 19:30ean, berriz, *Mama* filma eskainiko dute.
■ **Tolosa.** Leidor zinemaren, 17:00etan, *Oz, un mundo de fantasia* haurrentzako filma eskainiko dute. 19:30ean eta 22:00etan, *Los amantes pasajeros* ikusteko aukera izango da.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Topic Zentroan Txotxongillo taldearen erakusketak dago. Enkarni Genua eta Manolo Gomezaren erakusketak da, eta 80 txotxongillok osatzen dute.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoa eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Egunkoa eta gauekoa: Etxebeste, J.M. Gernikako

arbolaren lorategiak, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

ETZI

■ **Ibarra.** Egunkoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Egunkoa eta gauekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
■ **Beteku.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.
■ **Irurtzun.** Mutilloa, A.M. San martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●● **agurrak**

BLAI
tsakurkrosarab NON-STOP DOGWEAR.HO materiala
GREENHEART pentu naturalak

ASTELEHENAN IREKIKO DA

Santa Clara 1. buxua A - 20400 TOLOSA
Tel.: 656 779 873
email: blai@blaitolosa.com
www.blaitolosa.com

Mauka
Menu ezin hobea dastatu Oarso sagardotegian

OARSO SAGARDOTEGIA
Zubaitze kalea, 8
20100 Errentena (Oleaburu)
Tel.: 943-01 56 94

18€

www.mauka.eu **berria**

Harpide egiteak saria du

Egin HITZAREN harpidedun apirilaren Tetik maiatzaren 31ra arte, eta jaso

OPARI
Basoa banaketak eskainitako 3 ardo botila

eta

Harpidedun guztien artean

Areta Etxea nekazalturismoan bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza info